

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak enpresa bat aurrera eramateko oinarritzkoak dira. Gure lan guztia beraien beharrak asetzeko egiten direnez, hauek gabe, enpresa aurrera eramatea ezinezkoa izango zen. Horregatik, gure produktua egiterako orduan, gure bezeroen beharrak kontuan eduki ditugu, gure bezeroak sailkatzeko.

Gure produktua emakumetan oinarrituta dago. Gehienbat, hauek izaten direlako ile luzea edukitzen dutenak. Honek ez du esan nahi gure produktua emakumeek bakarrik erabili dezaketela, badaudelako gizonak ere ile luzea dutenak. Gure ideia, ilearen enkrespazioa kentzen oinarritzen denez, honetarako gure bezeroek, hau da, emakumeek edo gizonak enkrespazio arazoak eduki behar izango lukete gure produktua erabiltzeko.

Produktu honen sorketan oinarritu gara enkrespazio arazoak dituzten pertsonak erabili dezaten. Emakume batzuk ez dute erabiliko gure produktua ez dutelako behar edo ez dielako garrantzirik ematen enkrespazioari, baina, beste batzuk autoestimuko arazoak edukitzen dituzte beraien enkrespazioarengatik. Gure gizartean edertasun arauak existitzen dira eta pertsona batzuk autoestimuko arazoak edukitzen dituzte edertasun arau horietan sartzen ez direlako. Horregatik, eskrespazioarengatik autoestimuko baxuko arazoak dituzten pertsonen arazo hauek ekiditen lagundu nahi diegu. Horrela, gure produktuarekin, beraien ilea enkrespaziorik gabe egongo da eta autoestimua altuagoa edukitzen lagunduko diegu.

Hasiera batean, gure produktua, Espainia mailan salduko dugu. Inkesta baten bidez, konturatu gara, Espainiako %41 emakumeek enkrespazioarekin lotutako arazoak dituztela eta horietatik %20 autoestimuko arazoak pairatzen dituzte, arazo honengatik. Emakume asko direnez, beraiei gure produktua eskaintzea pentsatu dugu, Espainia mailan autoestimuko arazoak gutxitzeko. Arrakasta izanez gero, gure produktua Europa mailan saltzea erabakiko genuke, munduko emakume edo gizon gehiagok arazo hau jasan ez dezaten, eta munduan autoestimuko arazoak gutxitu al izateko.

Produktu hau hamalau urte baino gehiago dituzten pertsonak erabiltzea gomendatzen dugu. Gure produktuak spraya duenez, umeen esku egotea saihestea gomendatzen dugu, kaltegarria izan daitekeelako beraientzat. Spray-a, begietan sartuz gero, lehenbaitlehen urarekin ondo kentzen saiatu behar da. Sprayak arazoak sor al ditzake etorkizunera begi ikuspen arazoak ekarri ditzakeelako.